

## Prólogo

---

El *Anuario de Eusko Folklore* llega, con esta entrega a su número 50. Comenzó su andadura el año 1921 como una publicación que daba a conocer los trabajos de investigación llevados a cabo durante el año por los miembros que componían la Sociedad de Eusko Folklore.

Su fundador y director, D. José Miguel de Barandiaran, era profesor de ciencias en el Seminario Conciliar de Vitoria. Había creado poco antes, con alumnos de aquel centro, un grupo de trabajo para ir recogiendo en las localidades vascas las diversas manifestaciones del *saber popular*; aquello que por entonces en Europa se llamaba *folk-lore*.

En su larga trayectoria, de cerca de cien años, este Anuario apenas se ha desviado de su propósito inicial: el de dar a conocer trabajos de campo concediendo más importancia al registro y descripción de los hechos culturales constatados en el entorno que a las exposiciones teóricas o a las interpretaciones pautadas por determinadas escuelas.

A lo largo de su vida el *Anuario de Eusko Folklore* ha ido reflejando en sus páginas su propia dinámica en la investigación de campo. Del registro inicial de hechos puntuales pasó muy pronto a la descripción de manifestaciones culturales más complejas como la religiosidad popular, los establecimientos humanos o el modo de vida del pastoreo. De esta manera, metodológicamente se daba el paso desde una simple constatación de elementos de la cultura a una etnografía de corte sistemático.

Este proceso estaba abocado necesariamente a la descripción de la cultura popular en toda su extensión e integridad, tomando como unidades de sondeo localidades representativas implantadas en el área de Vasconia. Para instrumentar esta encuesta de campo, Barandiaran que ya había sido nombrado miembro de la Comisión Permanente de los Congresos Internacionales de Ciencias Antropológicas y Etnológicas, sacó a la luz en el Anuario correspondiente al año 1934 el *Cuestionario para una investigación etnográfica de la vida popular*. Constaba de 1.147 preguntas agrupadas en 23 capítulos.

La sublevación militar de 1936 y la consiguiente guerra civil cortaron de raíz este proyecto; el *Anuario de Eusko Folklore* se vio obligado a interrumpir su publicación durante las dos décadas que su director vivió exiliado más allá del Bidasoa.

Pero esta larga interrupción no apartó a Barandiaran de su empeño. El año 1946, una vez terminada la segunda guerra mundial, creó en Sara (Lapurdi) *Ikuska. Institut Basque de Recherches*, con un boletín que venía a ser –como señalaba en su primer número– la continuación del *Anuario de Eusko Folklore* fundado en Vitoria veinticinco años antes. Siguiendo aquel plan anterior publicó

de entrada una *Guide d'initiation aux recherches ethnographiques* y un nuevo *Cuestionario para un estudio etnográfico del pueblo vasco*.

En este boletín, *Ikuska*, que perduró cinco años (1946-1951) pudo publicar, junto a otras colaboraciones, monografías que describían en su totalidad la vida popular de varias localidades vascas transpirenaicas.

En 1953 regresó del exilio y al año siguiente al amparo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi creó en San Sebastián un Seminario de Etnología con el propósito de reemprender los trabajos de campo interrumpidos en 1936. Las investigaciones etnográficas sobre diversos modos de vida llevadas a cabo por los participantes en este seminario de etnología vieron la luz en las páginas de este *Anuario de Eusko Folklore* que volvió a publicarse en 1954. También se publicó aquí, en sucesivas entregas, la gran monografía etnográfica sobre Sara (Lapurdi) que Barandiaran había llevado a cabo durante su permanencia en esta localidad.

La regencia de una cátedra de Etnografía Vasca en la Universidad de Navarra a partir de 1963 proporcionó a Barandiaran la ocasión de relanzar un plan de investigación de mayor alcance. A este nuevo proyecto le dio el nombre de *ETNIKER*, que despertó el interés y concitó la participación de nuevos investigadores. Entre estos estaban, en primer lugar, sus alumnos de la Universidad.

Entre 1970 y 1975 Barandiaran extendió el proyecto a otros territorios vascos creando grupos *ETNIKER* de investigación en Gipuzkoa, Álava y Bizkaia. Esta expansión trajo consigo el incremento de las investigaciones y la creación de nuevas revistas etnográficas: *Etniker-Bizkaia* (1975), *Ohitura* en Álava (1981).

En 1969 se había creado en Pamplona *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* que acogió en sus páginas muchas de las investigaciones llevadas a cabo dentro de la metodología propuesta para *ETNIKER*. En esta revista publicó Barandiaran en 1974 una renovada *Guía para una encuesta etnográfica* que serviría en adelante para llevar a cabo una investigación que plasmara la cultura popular tal como es vivida en una localidad.

El *Anuario de Eusko Folklore* continuaría siendo, lo que hasta entonces había sido: el Alma Mater de la etnografía vasca del siglo XX. Una buena parte de los trabajos que en él fueron apareciendo así como en las otras revistas etnográficas arriba mencionadas seguían la metodología y las pautas trazadas por Barandiaran en su cuestionario general.

Los grupos Etniker que desde 1976 venían reuniéndose anualmente y que ya habían ensayado algunos trabajos de investigación en común, decidieron el año 1987, emprender conjuntamente la elaboración temática del *ATLAS ETNOGRÁFICO DE VASCONIA*. Planificaron para ello las sucesivas investigaciones de campo aplicándolos cada año a un tema de la encuesta

general. Con los datos obtenidos en estas campañas anuales y con los que anteriormente estaban constatados en este *Anuario* y en las otras revistas etnográficas, se han elaborado los volúmenes temáticos del *Atlas Etnográfico*.

En los 24 años transcurridos entre 1987 y 2011 han salido a la luz siete volúmenes de esta obra que con el debido rigor etnográfico ha registrado varios temas de la cultura popular vivida en todos los territorios de Vasconia.

Con los datos obtenidos en 74 localidades encuestadas su publicó en 1990 un primer volumen relativo a la *Alimentación doméstica* y tres años más tarde un segundo sobre *Juegos infantiles*. Los siguientes años se abordó la investigación sobre los ritos de paso que se dan a lo largo de la vida y con las numerosas aportaciones recogidas. Se publicó en 1995 *Ritos funerarios* y en 1998 *Ritos del nacimiento al matrimonio*.

A estos cuatro volúmenes siguió un extenso estudio sobre un modo de vida de larga tradición *Ganadería y pastoreo* que se publicó el año 2000. Seguidamente, el 2004, salió a la luz *Medicina popular*.

El más reciente estudio publicado es el relativo a *Casa y familia*, centrado en una institución nuclear de nuestra cultura.

Dos de los trabajos que se incluyen en el presente número del *Anuario*, los provenientes de Obanos (Navarra) y Moreda (Alava) son otras tantas aportaciones para la elaboración del próximo volumen que estará dedicado al estudio de la *Agricultura* y que verá la luz el año 2015.

Este otras aportaciones se ofrecen en este número los índices de autores y de materias de todos los trabajos que han aparecido en las páginas del *Anuario de Eusko-Folklore* en los 50 números publicados hasta ahora.

Para elaborar el detallado índice de materias se ha seguido el enunciado de las cuestiones tal como figura en la *Guía para una encuesta etnográfica*. De hecho los trabajos publicados en sus páginas a lo largo de estos casi cien años tienen su expresión en el *Atlas Etnográfico de Vasconia* tal como lo ideó su fundador Don José Miguel de Barandiaran.

Ander Manterola



## Hitzaurrea

---

*Eusko Folklore urtekariaren* 50. alea da azken hau. 1921. urtean jarri zen abian, Eusko Folklore sozietatea osatzen zuten kideek urtean egindako ikerketan lanak ezagutarazteko argitalpen gisa.

Sozietatearen fundatzaile eta zuzendaria, Jose Migel Barandiaran jauna, zientzia irakaslea zen Gasteizko Kontzilio-Seminarioan. Apur bat lehenago, zentro horretako hainbat ikaslerekin batera, lan-talde bat sortu zuen, Euskal Herriko udalerrietan *ezagutza herrikoia*ren askotariko adierazpenak jasotzeko; horri *folk-lore* esaten zitzaion orduan European.

Ehun bat urteko ibilbide luzean, urtekari hau ez da ia hasierako helburutik aldendu: landa-lana ezagutaraztea, eta garrantzi handiagoa ematea inguruan egiaztatutako kultur gertaeren erregistro eta deskribapenari, eskola zehatzen azalpen teoriko edo interpretazio gidatuei baino.

*Eusko Folklore urtekaria*, orain arteko ibilbide osoan, landa-ikerketaren berezko dinamika islatzen joan da bere orrialdeetan. Hasieran gertakizun zehatzak jasotzetik, kultur adierazpen konplexuenak deskribatzera igaro zen handik gutxira, hala nola erlijiotasun herrikoia, giza establezimenduak edo artzainen bizimodua. Modu horretan, pausoa eman zen kulturako elementuen egiaztatze soil batetik, joera sistematikoko etnografiara.

Prozesu hau kultura herrikoia ren deskribapenera mugatzen zen, zabal-tasunean eta osotasunean, Baskoniako udalerrri adierazgarriak azterketa-unitate gisa hartuta. Landa-inkesta hau antolatzeke, Barandiaranek, ordurako Zientzia Antropologiko eta Etnologikoen Nazioarteko Kongresuen Batzorde Iraunkorreko kide izendatuta, 1934. urteari zegokion urtekarian *Cuestionario para una investigación etnográfica de la vida popular* (Bizitza herrikoia ri buruzko ikerketa etnografikoa egiteko galdetegia) argitaratu zuen. 1.147 galdera zituen, 23 kapitulutan taldekatuta.

1936ko altxamendu militarrek eta ondorengoko gerra zibilak proiektua erro tik eten zuten; *Eusko Folklore urtekariaren* argitalpena bi hamarkadatan eten egin behar izan zen, eta, denbora horretan, urtekariaren zuzendaria erbestean bizi izan zen Bidasoatik harago.

Baina etenaldi luze horrek ez zuen Barandiaranek bere helburuan etsitzerik eragin. 1946an, Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean, Saran (Lapurdi) *Ikuska. Institut Basque de Recherches* sortu zuen. Bertan, buletin bat argitaratzen hasi zen eta, lehenengo alean jasotzen zen bezala, Gasteizen hogeita bost urte lehenago sortutako *Eusko Folklore urtekariaren* jarraipena zen. Aurreko plan horri jarraituta, *Guide d'initiation aux recherches ethnographiques* (Ikerketa etnografikoetarako hastapen gida) eta *Cuestionario para un estudio etnográfico del pueblo vasco* (Euskal gizartearen ikerketa etnografikoa egiteko galdetegia) berria argitaratu zituen hasiera batean.

Buletin horretan, *Ikuskak*, bost urteko ibilbidean (1946-1951), Pirinioez haraindiko Euskal Herriko hainbat udalerritako bizimodu herrikoia deskribatzen zuten monografiak argitaratu ahal izan zituen, beste hainbat kolaborazioarekin batera.

1953an erbestetik bueltatu zen, eta, Aranzadi Zientzia Elkartearen babesean, Etnologia Mintegia sortu zuen Donostian, 1936an bertan behera geratutako landa-lanari berriro ekiteko. Etnologia mintegi honetako parte-hartzaileek hainbat bizimodu motari buruz egindako ikerketa etnografikoak *Eusko Folklore urtekarian* argitaratu ziren, 1954. urtean argitalpena berrabiarazi zenean. Hainbat aletan banaturik, Barandiaranek Saran (Lapurdi) egindako egonaldian herriari buruz idatzitako monografia etnografiko handia ere argitaratu zen urtekarian.

1963. urtetik aurrera, Nafarroako Unibertsitatean Euskal Etnografiako katedra izateak aukera eskaini zion irismen handiagoko ikerketa-plan bat berrabiarazteko. Proiektu berri horri ETNIKER izena eman zion, eta, jendearen interesa pizteaz gain, ikertzaile berriek parte-hartzea ekarri zuen. Lehenik eta behin, unibertsitateko bere ikasleak zeuden, besteak beste.

1970 eta 1975 artean, Barandiaranek Euskal Herriko beste lurralde batzuetara hedatu zuen proiektua, eta hainbat ETNIKER ikerketa-talde sortu zituen Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian. Hedapen horrek ikerketak areagotzea eta aldizkari etnografiko berriak sortzea ekarri zuen, hain zuzen ere, *Etniker-Bizkaia* (1975) eta *Ohitura* (1981), Araban.

1969an, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* sortu zen Iruñean. ETNIKER egitasmorako proposatutako metodologiarekin egindako ikerketa asko bildu zituen argitalpenak. Aldizkari horretan argitaratu zuen Barandiaranek 1974. urtean *Guía para una encuesta etnográfica*; udalerrietako berezko kultura herrikoia bere horretan jasoko zuen ikerketa egiteko balio izan zuen orduetik aurrera.

*Eusko Folklore urtekariak* ordura arte izan zena izaten jarraitu zuen: XX. mendeko euskal etnografiaren *Alma Mater*. Lehenago aipatutako beste aldizkari etnografiko batzuetan agertutako lan askok Barandiaranek bere galdetegi orokorrean jasotako metodologiari eta gida-lerroei jarraitzen zieten.

Etniker taldeak 1976. urtean hasi ziren urtero elkartzen, eta ikerketa-lan bateraturako saiakera batzuk egin zituzten horrezker. 1987. urtean, elkarrekin *ATLAS ETNOGRÁFICO DE VASCONIA* proiektuari ekitea erabaki zuten. Jarraian, ondorengoko landa-ikerketak planifikatu zituzten, urtero galdetegi orokorreko gai bati aplikatuta. Urteroko kanpaina horietan lortutako datuekin eta aurretik urtekari honetan eta bestelako aldizkari etnografikoetan egiaztatutako datuekin, *Atlas Etnográfico* izeneko liburuki tematikoak prestatu dira.

1987 eta 2011 artean igarotako 24 urteetan, obra horren zazpi liburuki argitaratu dira; behar bezalako zehaztasun etnografikoarekin, Baskoniako lurralde guztietan bizi izan den kultura herrikoiairen hainbat gai jaso dira idatziz.

Inkestak egin ziren 74 udalerrietan lortutako datuekin, *Alimentación doméstica* (Etxeko elikadura) izeneko lehen liburukia argitaratu zen 1990ean, eta, hiru urte geroago, bigarrena, *Juegos infantiles* (Umeen jolasak). Hurrengo urteetan, bizitzako igarotze errituen gaineko ikerketari ekin zitzaion, eta, jasotako ekarpen ugariekin, *Ritos funerarios* (Hileta-errituak; 1995) eta *Ritos del nacimiento al matrimonio* (Jaiotzatik ezkontzara bitarteko errituak; 1998) argitaratu ziren.

Lau liburuki handi horien ostean, tradizio handiko bizimodu bati buruzko ikerketa zabala egin zen: *Ganadería y pastoreo* (Abeltzaintza eta artzaintza) argitaratu zen 2000. urtean. Jarraian, 2004. urtean, *Medicina popular* (Herri medikuntza) argitaratu zen.

Argitaratutako ikerketarik berriena *Casa y familia* (Etxea eta familia) delakoa da, gure kulturako oinarrizko erakunde batean zentratuta.

Urtekariaren ale honetan sartu diren lanetako bi, Obanosekoa (Nafarroa) eta Moredakoa (Araba), hurrengo liburukirako ekarpenetako batzuk dira; nekazaritzaren ikerketaren ingurukoa izango da, eta 2015ean argitaratuko da.

Ale honetan, besteak beste, *Eusko Folklore urtekariko* azken 50 aleetan agertu diren lan guztien egileen eta gaien aurkibidea eskaintzen da.

Gaien aurkibide zehatza egiteko, galderen enuntziatuei jarraitu zaie, *Guía para una encuesta etnográfica* argitalpenean agertzen diren bezala. Izan ere, ia ehun urte hauetan argitaratutako lanek *Atlas Etnográfico de Vasconia* argitalpenean daude jasota, horren fundatzaile Jose Migel Barandiaran jaunari bururatu zitzaion moduan.

Ander Manterola

